

FUNTSEZKO ELEKARTEAK:

- Zerbitzariak : Amazon

Gure aplikazioak funtziona dezan, ezinbestekoa izango da zerbitzari bat edukitzea. Ezinbestekoa izango da zerbitzari hauek fidagarriak eta kalitate onekoak izatea; izan ere, hauetan akatsen bat egonez gero, zuzenki gure aplikazioari eragingo dio. Horregatik, Amazon aukera ona iruditzen zaigu hornitzaile bezala.

- Diseinatzailea

Plataformak diseinu egokia izan dezan, aditu baten laguntza beharko dugu. Honek, aplikazioa ahalik eta modu antolatu zein intuitiboenean sortu beharko du, erabiltzaileentzat ahalik eta erraztasun gehien eskainiz.

- Programatzailea

Aurreko puntuko diseinuaren atalarekin zerikusia izango du. Izan ere, aplikazioa beraren diseinuaz gain, aplikazioaren funtzionamendu zuzena eraikiko duen programatzaile bat beharrezkoa izango zaigu.

- Udaletxeak

Aplikazioaren sustapena eta garapena bermatzeko beharrezkoak izango dira. Izan ere, batetik, herriko aisiaren inguruko informazioa eskuratzeko laguntzak eman beharko dizkigute. Eta, bestetik, aplikazioa herriko gazteengan zabaltzeko prozesuan ezinbestekoak izango dira. Gainera, hauekin aliantza sortzea erraza, eta aldi berean, onuragarria izango da, guk informazioa jasoaz onurak lortuko ditugun bezala, haien artean ere interesgarria izango delako herritarrek aplikazio honen erabilera egitea.

- Erakunde publikoak / Enpresa handiak (adibidez: eroski)

Erakunde publikoekin aliantza sortzea interesgarria izango da; izan ere, hauen inguruko publizitatea egingo dugu gure aplikazioan, eta horrela, hauek diruz hornituko gaituzte.

- Play / App store

Aplikazioa herritar ororen esku egon dadin, ezinbestekoa da aplikazioen distribuzio digitalaz arduratzen den plataforma nagusietan gure aplikazioa argitaratzea. Plataforma hauen artean erabilienak Play Store eta App Store dira.

- Lanbide

Lanbiderekin aliantza sortzea onuragarria izango da, batetik, beharrezkoa zaigun informazioa eskuratzeko bitartekoa izango delako. Eta bestetik, gure aplikazioaren erabilera egiten duen eta lan munduan murgiltzeko arazoak dituen pertsona orok modu zuzen eta natural batean Lanbiderekin harremanetan jarri ahal izango du.

- ETT (Empresa de Trabajo Temporal)

ETT bezalako enpresetan lan eskaintzak egiten dituzte, beti ere, denboraldi baterako soilik. Eta gazteen kasuan, badira asko urte guztian zehar ez bada ere zenbait hilabetez lan egin nahi izaten dutenak. ETTaren filosofia duten enprekin aliantza izatea lortzen badugu, gazte haueri lana aurkitzeko erraztasunak eskainiko dizkiegu.

- EHU

Euskal Herriko Unibertsitatearekin aliantza izatea ezinbestekoa izango da. Izan ere, gure aplikazioaren erabiltzaile izango diren asko ikasleak izango dira, eta unibertsitateen inguruko informazioa modu errazago batean jasotzeko aukera eskainiko diegu horrela.